

**XIX. MENDEKO GIPUZKOAKO SERMOI BAT****O. SARRERA**

Hona argitara dakargun semoi edo predikua Euskal Herrian gordetzen diren milaka sermoi eskuizkribatuetako bat da. Iturria Parisko Biblioteka Nazionaleko Celt Basque 110 zenbakian aurkitzen da. Sermoiaaren bukaeran zehaztasun hauek agertzen dira *Comprado en Oñate por un real el 3 de Agosto 1893. La fecha de este discurso es tal vez el año de 1871. Enviado a la Biblioteca Nacional á Paris, el 30 de Mayo de 1894. Le dialecte en est le guipuzcoen.*

Gaia sermoiaaren barrenean agertzen da. Garai honetan argitara eman ohi ziren liburuxka edo libelo ezkertar edo erlijioaren kontrakoa da. Era onetako argitalpenen kontra baditugu sermoi eskuz idatziak, zein euskaraz argitara emandako liburuxka edo foiletoak ere. Aldizkari honetako hurrengo zenbakian, gai honi jarraiki, gai bereko foileto bat argitara emateko asmoa dugu.

**1. TRANSKRIPZIOA DELA ETA**

Testua transkribitzean ez ditugu gaurko ortografia legeak kontuan hartu. Dagoen dagoenean transkribitzen saiatu gara. Dagoen bezala transkribatuz gero, ez dugu uste inolako era-

gozpenik izango denik euskaltzalearentzat. Guk egin ditugun zuzenketak, zein interpretazioak orrialde-oinean jasotzen ahalgindu gara. Modu horretara jokaturik, halako benetasun bat, edo bertatik bertaratasun bat eman nahi izan diogu, aldizkari honetako irakurle landuak eskertuko lukeena. Transkripzio zehatzarekin batera, testuaren argazki-erreprodukzioa egiten ere ahalegindu gara, guk jarri dugunaren berme.

## 2. EUSKARA EREDUA

Sermoi eskuz idatzi hau gipuzkoako euskaran dago. Gipuzkoako herri euskara zabar xamarrean gainera. Zabartasuna esposizioan ezezik, idaztankeran ere erraz nabarmenzen da. Herri euskara fidel eta bertatik bertarako bat denez gero, baditu euskalzaleentzat hainbat enkantu eta benetako kotasun. Hor dugu, esaterako, *noizarte sinistatu berditu apaiz eta fraileen esanac ezdaqui religiyua ta atarico aicia igualac dirala?* pasartea. Atariko haizea eta “zerbait” berdin direla esatea, ezer ez direla esatearen antzeko ziren euskaraz. Edo *atariko txakurrari beste kasu egin*, inolako kasurik ez egitea adierazten zuen. Badira hemen zerrendatu ditzakegun beste hainbat erramolde ere, baina ez da gure asmoa zerrenda zehatz iruzkindu bat hemen ematea. Beste atarikorik gabe gakizkio testuari berari.

## GIPUZKOAN IRAKURRITAKO SERMOIA

Biyotza penaz beteeten du beguirace usac mundu zaval ortara eta icustian aimbeste desordena, aimbeste descalabro, aimbeste escandalo, aimbeste ezjaquintasun edo ignoranci: eta au noiz ? A! au dembora batean ceña eguiten dan jaquinduri-yaren ostentaciyua, dembora batian ceñetan<sup>1</sup> guziyac pretendien duten izatia Salomon jaquinsuba baño gueyago. Baño cer-

---

<sup>1</sup> Berez centetaz irakurtzen dela dirudi.

tatic dator, nere euscaldun maitiac aimbeste desordena, aimbeste escandalo, ceña esanditequean munduba escandalo us biurtendala? Esan oteguenzanque ignoranzi edo ez jaquite au etorri dala inprentaric eztaucagulaco, edo eracusleric edo mai-suric eztaucagulaco, edo gizonari iragozten zayolaco naiduna pensatu eta esatia? Ez, ondo daquizute, iru urtez onuztic<sup>2</sup> libertadeac gañez egunda gabilzala, Mundu guciya gure gañean dala, ondasun eta aberastasunac gañez eguiten dutela oraingo jaquinsubac diotenez, eta guc icusten dugunez miseriyyac miseriyyac mundu guciya iya (1) acabatu duala.

Certatic dator bada diferenciya au, gaurco eguneco guizonac esaten zayon oyec bigotia uci, guantiac janzi eta bastoya artuta paseora dijuazen oyec esaten digute Espaňiya estala iñoz ere aiñ ondo egon nola orain dagon; eta galdezen badiyegu beste clase bati, auda jende sencilloari esango digu eztala iñoz ere egon Espaňiya orain becin galdua, ezditequeala iñor ere bizi. Ceñi sinistatu beardiyogu? Bai, gauza clarua da, estrañeco guizon oyec esanbeardute naita naiez, cergicatic au esatetic<sup>3</sup> bizi diran lanic eguingabe, beraz ezdiozu sinistatu biar gaurco eguneco guizonai, baizican lengo zarray, auda gure relijiyo santuco gauzac ondo gordecen dituztenay.

Nic baño obeto esplicatu zuan puntu au nire lagun batec gaur amabos erdera gabi eta elegante batian, baño, gaur presidente jauna ainda ona eze nai izandu baldin bazuen bazuec guelditu badira entenditugave erderaz, encargatu nau ni izeguiteco (2) zueri eusqueraz.

Beragatic gaur arrasean aldetan moztasunic aundiarenarequin adicera emango dizutet cenbat calte ecarri digun gueyeguizco eracusi biarrac eta gueyeguizco escribitu biarrac.

Badiruri ece, estrañeco beguiratuban, gaizqui minzazen nai-cela, gaizqui esatendetala, gueyegizco eracusibi[a]rrac edo era-

---

<sup>2</sup> Ez da garbi ikusten berez ikusten dena *unztic* da.

<sup>3</sup> Berez *au estatetic* agertzen da. Hutsa delakoan gaude, horrexegatik aldatu dugu.

custe licencioso orrec ecarri dituala calte izugarriyac: baña ez, aditu nazazute contuz, bertatic probatuco dizutet. Ezdezute iñoz ere aditu noloco maisubac alaco discipulubac? Goacen beraz esamiñazera ceindiran gaurco eguneco maisubac, cer eracusi dezaqueten eta cerdan eracustendutena. Ceindira? ezdet esan nay guciyac, cergatic badira oyen artean a[s]co etaasco jaungoicoari graciyac dotriña ederra, eracustsi catolicoa predicacendutenac, baña nola gaurco egunean asco gazte edo gueyenac dijoacen oso arroturic libertade ciquiñ orren usaya-requin beren escoletara guertacenda ezdutela ere baliyo maisu on<sup>4</sup> oyen maitasunac oyec biar becela zucencoco, eta au guertazen bada maisu biyoz onecoquin, cer guertatucoda (3) ajolaric ezayon maisubarequin, edo obeto esateco, bera bezela gaiztua discipulua izate nay dunarequin?

Cerdá guizon oyec eracusten dutena? Ha! nic baño<sup>5</sup> obeto daquizute nola asicodiran esanaz apaizac ezdirlala ezpada engañadore bacuec, jende sencilloa eta ignoranteen bizcarretic farra egu[in] ederqui jan, obeto esan, ondo pasiatu eta gañera gañeracoac esanaz acabacendute. Añadicen dute, frailiac berriz dira casta bazuec umildade asco campotic eta barrenen satanas ber[al] baño ere millaaldiz oquerraguac, infernu eta purgatoriyo asco besterenzat: Ezdegú esanay ere cerdiran Jesuitac diote oyec, cergatic oyec eztira contentacen munduban guerra eta naspilla jarriarte; eta oyec guztiyac probacenditzte historico pasage falsoaquin.

Bañan cer eguiten du esplicaciyo oyen vistan discipulo ino-centeac? Estrañecoan escandalizazenda eta esaten du, cerda au? Bañan berriz ere izeguitendu igual edo oquerrago eta orduban ezda aimbeste arricen; baña maisuba egunero arida dotriña au esplicacen eta discipulua venezcen, venezcen eta azquenean osoro berabecela jarcendu.(4)

---

<sup>4</sup>Berez *maisu ono oyen* agertzen da. Zuzenketa gurea da.

<sup>5</sup>Jatorrizkoan *Ha! nic baña obeto*. Zuzenketa gurea da.

Lenago illero confesazen zan, orain choraquerizat dauca, lenago mezaric ezuan uzten jaegegunetan, eta orain dijoazenay burla eta farra eguiten du. Baña oraindic gueyago, cursua acatatuta, badijoia echera Ciceron bat eguinik, baña certan? ez estudiyoetan baizican gaitzaqueri nazcagarriyetan.

Allegacen da jai eguna eta ezdu pensacen elizara joateric, ama badatorquiyo esanaz ia eztaquiyen jai eguna dala mezeta-ra juateco jeiqui gabe egoteco; eta semiac esaten diyo amari, oraindic choruago eguingoda, noizarte sinistatu berditu apaiz eta fraileen esanac ezdaqui religiua ta atarico aicia igualac dirala? lenago sinistenuan guciya, bañan orain estudiatuditut gauza asco eta orrelaco choraqueriyai ezdiotet eguiten casoric. Ama arricenda esatendiyo bere senarrari eta cer pasacenzayot-en ezdaquitela gueldizendira; eta emendic datozi disputac, ocasiyua eta gauzariac samiñenac sentituco otedu seme onec bere ama eta aitaren sufrimentuba eta padecizea? Ez, cergatikan quenduciyoten jaungoicoaganaco (5) bildurra eta ezdiyo bildurric izango gurasoari. Esandiyote guztiyoc igualac guerala eta ezdu ezagutu nay aitaren nagusitasuna, lapurreta ezdauca pecatuzat, erietia<sup>6</sup> eztauca pecatuzat, guztiya libre, au da gaur-co dotriña, auda gaur icastendana eta dotriña au icastendan bitartean ezdago gauza onic, al ferric diadar eguingodezute, gue-zurraren profetac, eracusteco libertadia ezdala gaiz uzugamir<sup>7</sup> onen ama, bada auda gauzabat ain clarua nola orain gaubadan.

Badacar berequin eracusteco libertade onec beste gaiz bat, eta ez chiquiya. Gauza icusiya da estudiantiac ezguerala etorcen icasteço aficioarequin, beinzat gueyenac, eta nola libertade onec ecin obliga gaizaquian asisticera escolara, cer eguiten degu? ez juan, eta eciñ icasi, gaizqui diyote icastendegun jocuban eta beste ecin esan alako viziyoetan: badatoz esamiñac eta

<sup>6</sup>Ez da garbi ikusten *eratia* ote da? Edo beste zerbait?

<sup>7</sup>Halaxe ikusten dugunez gero, ez dugu aldatu. Bizkaiko euskaran *uzu* hitza erabiltzen da ekialdeko euskalkietan *izi* erabiltzen den bezala, asimilazioa eginez.

ateracen gara gaizqui edo eguitenda gurequin injusticiyen bat, onela batian (6) sartu bestian atera acabacenda carrera era cerdaqui profesore arec? eta cerdaqui<sup>8</sup> letradu arec, eta cerdaqui medicu arec?

Emendic datozen calteric izugarriyenak: beraz arrazoy nuan nic esatian eracuste gueyegizcua zala osoro caltegarriya.

Nere discursuaren bigarren partian da aguerzia calte izugarriyac ecarridituala gueyegico ezribitubiarra, edo escribizeko licenciya orrec: eta eguiyaz, bertatic probatuco dizutet.

Ezda egui aundibat libertade gaiztoan jarrian ezqueroztic jende guztiyac emandiola periodico edo gazeta leziari, azturic bere obligacioari cumplimentu ematera? Ezda eguibat jornalero miserable bat ezdala ocupacen gueyago nundic bere familiya socorrituco duen nola ocupacendan politicaco gaucetan, auda cer misteriyo daguan, ceñi tocacenzayon Espaniyaco errege izatia, cerdan republica, cerdan socialismua, eta cerdan cumixinua? Eta cer dator emendic? Ha, ondo daquizute emendic ezdatorrela ezpada alferqueriya, viciyua eta criminaltasuna.

Emendic dator aimbeste languille alcha (7)zia beren nagusiyen contra, esanaz ezdala justuba, ezdala bizi ondodan gauza ayec beti lanian eta nagusiyac pasiacen; emendic dator aimbeste matrimoniyo apartacea, semia aitaren contra alchazia azturic araco dotriña eder ura zeñac esaten ciyon, bizizaitez beti zure gurasuen bildur santuban bada oyec dira zure jaungoicua becela; Emendic dator emacumeac ere aztu dirala beren obligaciyoa cumplizera, entregacendirala politicaco lecturara, entregatu bearrian beren seme alaven educaziyora.

Eta cerdator emendic? Emendic ezdator beste gauzaric ezpada mundubaren galmena, mundubaren ondazia. Ez, ezda munduba erremediatuko esate ussarequin gaizqui guaz, oso-ro ere gaizqui; ezda munduba erremediatuko mingarrizco negarrarequin baizican biardira naita naiez obrazco negarrac;

---

<sup>8</sup>Hemen jatorrizkoan *cerdadi* agertzen du. *Lapsus calami* bat da, aurreko zen gerokoetan *daqui* agertzen baitu.

precisua da ezaguzia gaiza nundic datorren sendazia naybada, baña precisua ere osoro precisua medicina anbertan apli-  
cazia.

Baña guacen icustera gaurco eguneco escrit(8) reen obrac  
edo emañac. Escribicen otedituzte gure a[u]rrecuac escribitu-  
citzustenbezela liburu aundi eta jauncoicuaren bildur santuz be-  
tiac? Ez, oyen liburubac ezdira ezpada folleto verde vi, protes-  
tanteen liburuetatic artutaco apunte eta errencara bazuec bes-  
teric.

Baña folleto chiqui oyec badiruri escribitu dituala infernuco Demoniac berac, cergatican aimbeste guezur, aimbeste hereji, aimbeste protesta, aimbeste veneno daucate esanditeque guizonec ezdezaquiala pensatu ain guerra aundiya eguitia eguiyari, auda bere contra. Esaten zaigu liburu oyetan eztaguala jaungoicoric, baditeque esan disparate aundiyagoric? cerbada cerubac eta lurrac ezaizquigu momentu guztiyetan esaten jaungoicua badala? *Celi enarrant gloriam Dei, eta opera manus eyus anuciat firmamentum.* Cein cera zu atrebizen cerana esa-  
tia ezdala jaungoicoric liburu infernal ortan? Ceñec emandizu zuri izatia? Ceñec eguinditu cerubac eta lurre, eguzquiyaren edertazuna, izarren milloitasuna, illargui ederori gabian dabilzanay argui eguiteco. Cabitudi[telque, be (9) raz guizon arrazoizcuaren buruban totoqueri aundiyagoric, eroqueri aundiya[go]ric? Cerdia beraz zure intenciyua esaten dezunian jaungoicoric ezdala? ah! ezagucenzaitugu, ezgaituzu ez engañatuco desesperaturic zaude zure salbaciyoaz, eta zu bezela nai dituzu bestiac ere juanditecela infernura. Ez, eziogu casoric eguingo zure liburubari, edo obeto esateco erreco ditugu iñor ere en-  
venenatu ezdedin.

Liburu chiqui eta infernal oyetan zaigu animaric ezduala guizonac, eta beragatic ilcen dala guizona eta acabazen-  
dala guztiya, ez ceruric, ez infernuric et[al] ez purgatoriyyoric; zacur bat becela dala guizona ez gueyago et[al] ez guchiyyago. Nere euscaldun maitiac bada posible guc adizia au, blasfemia

izugarriya au gure contra asarre justu eta santu bat formatugabe gure biyoziān guizon madaricatu oyen contra? Ez, au izangolizaque uztia euscaldun izatetic.

Esamiña dezagun dotriña zacurraquin bat eguin naigaitusten au. Asi gaitecen izeguiten animaric ezdala esaten duan jaquinsu orrequin, eta trata dezagun zacur bati bece (10) la ez guizon bat becela icusicodegu guizon au berialasen asarrezenda-la, justiciyara eramatzen gaituala, esanaz faltatu diogula guizoneari biar zayon errespetua, bat eguin degula animali eta zacurraquin; beraz guizon onec sinistacen du anima badala, beraz guizon onec esatendu gauzabat eta sinistacendu bestebat, beraz guizon engañazale onec ezdu beste gauzaric mereci ezpada despreciacia, eta bere obrac surtan quisqalcea.

Diyo ere guizon infernal orrec, il eta acabo: Oh! eta cenbat engañacendituan guezur negargarri onec: il da acabo izatecotan cergatic senticendezu alaco ezin egonbat gauza gaiztobat eguiten dezunian, eta consuelo edo poz bat ondo obrazendezunian? Ceñec jarcenditu zure viyocian vi sentimentu orren differentiac? Ah! Jaungoīcuac berac, eta certaraco? Zuc alcanzadezazun zure azquen fiña. Guacen oraindic aurrera, eta icusico degu guizona ez gañeraco guztiyac contentu daudela mundu onetan, argatic animaliyay ematen badiozute naico jana eta beren libertadia osoro contentu daude, ezdute gueyagoric nay; baino<sup>9</sup> guizona (11) ri emanzayozcazute jana, erana libertadia, eta oraindic gueyago naidu: emanzayozcazute aberastasunac, empleuac eta naybadezute munduguztiya eta orduban eranzungo dizute guztiyetaz aspertuta Salomonec becela *vanitas vanitatem et omnia vanitas*. Uszada guztiya eta ecer ez usza besteric. Eta cergatican au, nere euscaldun maitiac? Ah! cergatican jaungoīcuac eguinzuān guizona berezat, auda felicidadera-co, ontasuneraco; baña cerda felicidadea edo ontasuna? anziñaco filosofo jaquinsubatec esaten du dala *Estatus perfectus aggregatione omnium bonorum et esclusione umnus malorum*:

---

<sup>9</sup>Baino bat irakurtzen dut ez baina.

au da egon leku beticobat, pensatu eta imaginatu alditezquian gozamen guztiaquin, eta disgustoaren arrastoric ere bague. Pensadezagun definiciyo onen gañian, eta icusico degu ezda-guala munduonetan *estatus perfectus* auda, vetrico vizizaric, cergatic egunero icusten degun gauzada guztiyac ilcendirela bazuec gaur bestiac biyar, bazuec goizago besteac beranduago: beraz eztago felicidaderic emen; beraz biardu izan beste lecubat jaungoicuac guizonarenzat: beraz biardu izan infernuba eta ceruba bestela jaungoicua es lizaque jus (12) tuba izango; probatuco dizutet cergatic ez bitan. Esandet lenago animaliyac ezdutela beste desioric ezpada jana eta beren libertadea eta vi gauza oyec cumplizendituzte munduonetan, beraz oye-quin justuba jaungoicua, baña guizonari emandiyo beste desio-bat, auda felicidadiarena eta felicidade au ezin alcanzadeza-quiala munduonetan icusi et[al] probatudegu lenago: beraz esanbiardegu badala beste mundubat edo bestela animaliyari gueyago naidiola Jaungoicuac guizonari baño, baña nola au ezin izan litaquian gauzada beraz bada beste munduba, beraz ezda ilcean acavo.

Libertadeco liburu nazcagarri oyec ezdira contentazen orrembesterequin, ezdira venzutuzat ematen, oyen lotsabaqueria aurrera dijoa oraindic, ezagun da principiotoric ezdutela, lo-gicaric icasi ezdutela edo icusi badute osoró aztuzayotela. Prueba oyen bistan esaten dute anima badegu, ceruba ere boda, baño eztago infernuric. Baña<sup>10</sup> certan fundazenzera esateco eztaguala infernuric? eztaquizu guizon bazuec ilcen direla jau-naren graciyan eta vestiac peca (13) tuban, bazuec dirala chit onac eta bestiac osoro gaiztuac? nola naidezu bijac izandeza-ten ceruba, ezdaquizu orduban guztiyoc ízangoguiñaquiala gaiztuac, eta cer izangolizaque mundu onetaz? Ezta veraz pos-ible infernuric ez izatia, cergatican orduban Jaungoicua esliza-que justuba izango. Icusten dezute beraz escribizeco libertadea gaiztua dala osoro gaiztua.

---

<sup>10</sup>Horrela irakurtzen dut nik.

Orain beraz sufrituco otedegu gueyago, agoantatuco otedegu gueyago gure religiyuan eta gure sacerdoteac izanditecela insultatubac, vurlatubac, despreciatubac? Ez, euscaldunac gue-ran bitartean, cergatican au izango lizaque gure fueno santubay ataque gogorbat eguitea. Emendic aurrera egongoguera contu-ban ezdedilla sartu guere campo ederretan Pirineoz auzticaco dotriña venenosoric.

Nere euscaldun maiteac, ezpadegu gaurtic aurrera au egui-ten beguira ceruorau (?) gure contrara esatia, baña cerura (?) esatia cergatic guciyooc gaude preparaturic azquenian martiriya bera ere guere religiooa galcen icusi baño lenago. Bai, zuec euscaldun emacumiak alchaco cerate valorez eta indarrez vete-ric (14) icustian gure religiyuac peligrazenduala, icustian zuen umiac eta alabac galdubearrac dirala bein betico, icustian zuec jayotaco erriya an galcera dijuela, diyot berriz ere, Alchacoceratela araco Salamancaco ayec alcaciran becela Anibal Africanuac desarmatuta entragaceracituala<sup>11</sup> beren sena-rrac, grodezenditzte gonapian guizonen armac eta onela cam-pora atera ciranian emanciozcaten armac beren senarray, ani-matu cituzten cijuacela berriz Africanoen contra irabacico zio-tzen beren independenciya, eta beren religiyua, eta au eguiten dezutela emangodezute<sup>12</sup> prueba berri bat amoriyoz beguira-zendiozutela oraindic zuen religiyoari.

Eta zuec guizonac, aundiyan eta chiquiyac gaztiac eta zarrac, aberatsac eta pobriac, jaquinsubac eta ignorantiac acordazai-tezte Espaniolac ceratela eta oraindic gueyago euscaldunac ce-rate-la eta beragatic ezin sufritu dezazuquetela injuriazia — eta bere ministruac.

Acordazaitezte bestela araco anzinaco erri Sagunto izen-tzendan ura: beguira nola (15) bere religiyoari amoriyuac etre-gacera cucenduan azqueneco supliciyora. Bay Anibal indarsu

<sup>11</sup>Berez *entragacerazicituala* iracurtzen dut. Soberan dagoen -ci- hori neuk kendu dut.

<sup>12</sup>Jatorrizkoan egongotezute agertzen da, -t-rekin. Zuzenketa gurea da.

eta valientiac atacacendu tropa izugarriyaquin erri chiqui eta miserable —; badirudi eze momentu batetic bestera guztiya sujetatu bearduala, bañan ez, cergatic peleacenduten religyuagatic ezdute etsizen azqueneraño, illebete asco pasa ondorean guerra onetan, icusiric beren indarrac acabazen zijuazela, alimentubac iya acabatucizaizquiota, murallac lurrerazen zijuerala eta dembora guchiren barrenean cartagotarrac zartuco zirala errira... Cer eguiten dute? Ah! goguan iduqui, ez aztu sekulan Españolec izatia naibadegu, ah! valientequeri guciyen valientesuna, heroismu guziyen heroismua, eta bacarric Espaniolac eguidezquien, et bacarric español valientiac, eta bacarric español religuiosuac. Bilcen dituzte beren aberastasunac eta ala guztiyac, eguiten dute su aundibat plazaren erdiyan sarcen dituzte ara — umiac eta zarrac gauza ez diranac arceco momentu icaragarriyartan, eta guz (16) tiyac contentuz sarcendira subaren erdira cantacen jaunari bren alabanzac nayago zutela anchen erre enemigoaren prisionero izan baño: eta gañeraco guztiyac juanciran armac escuetan zituztela enemiguarengana baña venzutubac guelditu ciranian, corraca etorriziran eta denac sartuciran surtara gueldicenzala guztiya acabatuba.

*Tira bada guc ere ayen imitaciyyora lengo emandezagun biziya religiuari insultobat eguitia sufizia baño.*

Eta esan dezagun azera betico elizaren enemiguac, azera Satanesen escuetatican atera diran liburu infernal oyec.

*Xabier Kaltzakorta*